

Aitzol Iriondo Iartza euskal preso politikoa Euskal Herriko espetxe batera ekarri dute

:: 16/12/2023

Lannemezango espetxetik Martutenekora lekualdatu dute.

Aitzol Iriondo Iartza euskal preso politikoa Lannemezango espetxetik (Okzitania, 290 kilometrora) Martutenera (Gipuzkoa) lekualdatu dute, hark hala eskatu ostean. Iriondok hamabost urte daramatza preso, eta Euskal Herrian jarraituko du Frantzian ezarri zioten kartzela zigorra betetzen. 2008an espetxeratu zuten, eta hainbat epaiketa izan zuen arren, ezin izan zuten frogatu leporatzen zioten exekuzioak bera gauzatu izanak, ondorioz Estrasburgon heman zen lapurreta batengatik kondenatu zuten. Moulins-Yzeureko kartzelan egin zituen hainbat urte (Frantzia, 760 kilometrora), 2019an Lannemezangora lekualdatu zuten arte. Aurrez, Moulinsera bidean, haren senideek auto istripu bat izan zuten.

Horiek hala, bederatzi euskal preso daude egun Euskal Herritik kanpo, denak ere Frantziako kartzeletan: bat Reaun (Frantzia, 890 kilometrora), bat Naonedan (Bretainina, 600 kilometrora), eta zazpi Lannemezanen.

<https://eh.lahaine.org/aitzol-iriondo-iartza-euskal-presu>